

Hontza familia elkarte gara. Talde hau lau hezitzaileez osatuta dago: Naiara Romero, Olatz Sanemeterio, Irati Erbiti eta Amaiur Ugalde. Durangon kokatzen gara, Bizkaiko erdi-hego-ekialdean hain zuzen ere.

**Irati Erbiti Manterola** 2003-ko martxoaren 17an jaioa, 19 urteko Andoaindarra haur hezkuntzako goi mailako titulua, EGA euskara titulua eta urteetan hurrekin jardun duen neskatala da.

**Naiara Romero** 2003ko azaroaren 16an jaioa, 19 urteko Larrabetzuarra haur hezkuntzako goi mailako tituluduna.

**Olatz San Ementerio Perez** 2001eko otsailaren 26an jaioa, 21 urteko Astrabudutarra haur hezkuntzako goi mailako titulua eta begirale titulua daukat.

**Amaiur Ugalde** 2003-ko abenduaren 15an jaioa, 19 urteko Ugaondarra haur hezkuntzako goi mailako tituluduna.

Gure nahi eta helburuak haurren familiei zuzendu eta egokitutako formakuntzak eskeintzea da. Egun utsune nabarmen bat ikusten dugu inguruko familien artean, izan ere, haurren tutore anitz ikusten ditugu zenbait gaiekiko ezjakintasunean murgildurik eta ezjakintasun horiek argitzeko nora joan edota laguntza non eskatu ez dakitelarik. Beraz, gu izango gara soluzio horiei aurre egiteko eta heziketa hobe baten bila laguntzen jardungo dugunak.

Formakuntza ezberdinetan murgilduko gara, hau da, nutrizioaren ingurukoak, inmigrazioaren ingurukoak, psikomotrizitatearen ingurukoak... eta egungo gai ezberdinekiko familien kezkak, buruhauste zein zalantzetan lagundu zein informatu eta aholkuak emango dizkiegu.

Honekin lortu nahi duguna da, edonork izan dezakeen zalantzak argitzea. Ondoren, familiek praktikotasunean jarri ahalko dute ikasitakoa. Guk proiektu hau aurrera eramatea aukeratu dugu ikusten dugulako gizartean honen hutsunea dagoela honelako elkarterik oraindik ez delako sortu, eta egunak pasa ahala arazoa aurrera doala ikusten dugu.